

## BOSGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Helduen Hezkuntza.

1.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako kompetentziak eta jakintzak eskuratu nahi dituzten helduek beren baldintzetara eta beharretara egokitutako eskaintza izango dute. Irakaskuntza hori presentziala, erdi-presentziala eta urrutiko hezkuntzaren bidezkoa izan daiteke.

2.– Ikasleek jakintzaren ikuspegi integratua eskuratze aldera eta horren bidez kompetentziak garatu eta XXI. mendeko erronka eta desafio global nagusiei arrakastaz aurre egite aldera, etapa honetako irakaskuntzak modu modularrean antolatuko dira, hiru eremutan, eta, horietako bakoitzean, bi mailatan:

a) Komunikazio-eremua. Dekretu honen III. eranskinean Gaztelania eta Literatura, Euskara eta Literatura eta Atzerriko Hizkuntza ikasgaiei buruz jasotako gutxieneko ikasketak bilduko ditu.

b) Eremu soziala. Dekretu honen III. eranskinean Gizarte Zientzietako ikasgaiei buruz (Geografia eta Historia eta Balio Zibiko eta Etikoetan Oinarritutako Hezkuntza) jasotako gutxieneko ikasketak bilduko ditu.

c) Eremu zientifiko-teknologikoa. Dekretu honen III. eranskinean Fisika eta Kimika, Biologia eta Geologia, Matematika, eta Teknologia eta Digitalizazioa ikasgaiei buruz jasotako gutxieneko ikasketak bilduko ditu.

3.– Ikasketa horiek bi ikasturtetan egiteko moduan antolatu behar dira.

4.– Bigarren paragrafoan aipatutako hiru eremuetako bakoitzari dagozkion mailletako bat gainditzeak Estatu osorako balio izango du.

5.– Eremu guztiak gainditzeak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua eskuratzeko eskubidea dakar berekin. Era berean, irakasle-taldeak proposa dezake Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua ematea eremuren bat gainditu ez duten baina beren ustez helduen oinarrizko prestakuntzaren helburu orokorrak modu globalean lortu dituzten pertsonen. Erabaki horretan kontuan hartu behar dira ikasle bakoitzaren prestakuntza-aukerak eta jarduera akademiko eta laborean integratzeko aukerak.

6.– Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak, aldian-aldian, 18 urtetik gorako pertsonen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua zuzenean lortu ahal izateko probak antolatuko ditu, baldin eta funtsezko kompetentziak eta etapako helburuak lortu badituzte. Proba horiek

irisgarritasun unibertsaleko neurriak bete behar dituzte, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasle guztiarentzat egokitu behar dira eta hiru ezagutza-eremuetan oinarriturik antolatuko dira.